

# EGI-BILLA

Egiaz maite-mindurik  
goiz batean, goiz-giozetik,  
basora urten nintzan, kezkatuik...  
Eta otsoarekin topo-eginik  
itandu neutson:

—Egunon,  
otso, otsoko!  
Ezagutzen dok ik iñon egiarik?  
—Oa, gizon, erantzun eustan, oa gorantz gorago..  
Egiarik otsoen artean, indarrean,  
aserrean, gudu eta burrukan  
ez dago.  
Joan adi gorago.

Egiaz egarriturik, ezin egonik,  
basoan sartu nintzan...  
Eguerdia zan...  
Iturri bat aurkitu nuan,  
eta an erle bat, goizeko lan ondoren,  
iturrian, egarria kentzen, asetzen.

—Erle, erle bizkor, langile,  
zu zara egi-zale,  
egia non bizi dan ba-dakizu?—  
Arren, esaidazu.

Eta erle zoliak erantzun:  
—Lagun, ni emen nabil gau t'egun,  
ara-ona, lorez-lore egaz  
lanean, bearrean, izerditan,  
baiña egiarik ez dut ikusi...  
Nor da egia ori?

Egiaz goseturik, nekaturik,  
baso itsuan sartu nintzan,  
eta artzain zaar bat aurkitu nuan,  
arratsaldean, txabola aurrean,  
ogi-gaztaia jaten...  
Ardiak inguruan gozo ausnartzen...

—Gabon, aiton,—esan neutson,—  
egia dut maite, egia dut bear...  
Egiarik ikusi dozu or basoan zear?  
—Bidazti, zergatik zabilza kezkatu,  
negarrez, nekaturik,  
egiaren atzetik?  
zatoz barrura;  
nire txabola zaarrera  
sartu zaitez...—  
Eta sutondoan, berotan,  
ogi-gaztaia jaten genduan bitartean  
esan eustan:

—Egi-billa, seme, ez joan iñora...  
Begira zeure barrura...  
Egia zeu zara...  
Zure adimena, Jainkoaren argia da,  
Goikoaren begia.  
Zaindu egizu argi ori, garbi.  
Zure naimena, indarril: andiena da.  
Or dozu benetako askatasuna.  
Ez zaitez iñoren morroi egin,  
Ez zaitez lotu, ez ats-gin, ezta urrezko kateekin.  
Utzi, seme, zure barruko txoriari kantatzen,  
eta ikasi suge-gorriari burua zapaltzen.—  
Au entzunik,  
nik ez dakit nola,  
nire barrua, bereala,  
eguzki argi egin zan,  
eta ez nuan geiago ikusi  
ez txabolarik,  
ez ardirik,  
ezta artzain zaarrik.

Nor zan artzain zaarra?  
Nire kontzientziaren deadarra.

GOIKOETXEATAR IÑAKI

Itziar'era bidean

Igande goizian...  
Belbide zabalán,  
urdiñan, belbillak  
ba duaz egazka,  
ikurriña atzian.  
ondiño goizalde...  
Lañua inguruan.  
Baserri, zugatzak,  
erriak, zubiak,  
danak atzerantza;  
belbil erreskadak,  
aurrera bidian.

Eskuman, or goien, ta laño ganian  
Tabira'ko atxak, buru agurgarriak.  
Nik esango neuke, dirdiraz dauzala!  
Euzko erria azten ikusi dabenak;  
ain beste anei urte, azke izanda ta,  
zapalduta eun urte, gorpuz antzera...  
Orain buru jaso, ta gora jarritzen,  
berbiztu da erria. Asabak pozarren  
atz-tonterretatik, geure begira.

Gu, aurrera beti...  
Ezkerraz uriak, uri nagusiak:  
ormadi goiluze, biltzen dira bertan.  
Atzian geratu, gu beti aurrera.

Barrero mendiak, ta mendi aldapean  
ardiak lakoxe  
basetxe zuriak, dauz bananduta.

Au da geure erria!  
Geure Mikel Deuna,  
zeure egun ospatzen ba-guaz eta,  
zu buruzagia, zaindu beti Euzkadi.  
Geyenak garanok,  
onenak gaitzezan, lagundu biar.

UTARSUS